# JULE GOIKOETXEA

# tractatus

# Tractatus

## Jule Goikoetxea

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2014 Jule Goikoetxea
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2014ko maiatza
Edizio hau: 2014ko maiatza

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

*Tomas Goikoetxeari*

*ezizenez Flanagan*
*Gaurhuts*
*Fermin Gorraitz*
*Carlota*
*Garikoitz*
*Makalulu…*
*Triniren semea*

# ALBAIT ZORIONTSUENA

albait zoriontsuena
izan zaitez gaur
bihar berriro
gaur izango baita

eta lehen aldian zoriontsua
izaten jakin ez bazenuen
espiritualki miserablea
egingo zaizu eternitatea

baina gaur zoriontsua
izan baldin bazara
a! orduan...
orduan eternitatea egingo zaizu
espiritualki aspergarria

# TRACTATUS CIVICUS

# TRACTATUS CIVICUS

hazitakoan
zibilizazioaren plazer
diskurtsibo patologikoan barrena
galdu naiz
eta txikitan gidatzen ninduen
mutiko basatiaren idearioa
suntsitu egin da

gaizki atera den neskatxa baten
posterretratua daukat ordezko
susmagarriki
komen eta perpaus
subordinatuen
ezer laburtzen ez duen
laburdura motz honen
menpe

hitzak

munizioa
barreiatzen du

emozionalki
menpekotasuna
samurtu eta
ziurtagiriz
bizirauteko

honezkero
nire senetik atera naiteke
oligarkikoki
inperio alemanaren
europar onespenarekin
nire obedientzia akreditatu dute
orain Lady naiz
    Sir-en emazte
egiarenean ostatu hartuta
    boterearen
    plazer diskurtsibo patologikoan
    egoitzaduna

honezkero
erail dezaket
zibikoki
hots
emozionalki

boterearen
egiaren
eta hitzaren
menpe

# HUMANITATEA

Zuzen
zentzugabekeriaren gainean
tente
ibiltzeko sofistikazio hori

# POESIA

Debekatua daukagun
garen guztia
sartzen dugun lekua
da poesia.

Signifikantearen erritmoa
bere ondare antizapaltzaileaz
da poesia.

# GLORIA

ez zintuen inork
Demokritorekin nahastu
baina susmoa zegoen
ez ote zenuen bizitza luze
eta ankerra izango

oso
oso urtetsu
hilko zinen
Olinpo prekario batean

besterik ezean
gazte hiltzea
hautatu zenuen
gazte
eta glorian

sablez
porrotez
eta konspirazioz
lehorte hordiz
eta tolerantzia arriskutsuz
beteriko glorian

Sokratesen gisara
bizi izan zinen
zirikatzeari utzi gabe
Eoloren antzera
zatikatua
desagertu zara
itsasoaren babesera

zure azken hatsean
ducados batekin
bedeinkatu duzu Marx
eta hortxe utzi duzu Hegel
gorputza trokaturik
eta sozialistak zorabioan
aulki baten inguruan
jira-biran

Zinikoekin biziatua
anaideia
ez dirurik ez lotsarik
Feboren moduan
portatu zinen
bizirauteagatik

Diskordia bezala
identitateagatik

baina aspaldi du dakigula
Oteizarena
Benitorena
eta KGBrena zarela

demokraziaren
eta
klandestinitatearen
gerra hotzarena

sablez
bizitzaz
eta konspirazioz
lehorte hordiz

eta tolerantzia arriskutsuz
beteriko glorian

# HEREDATU NUEN

Berandu agurtu ninduzun
arratsalde despistatu hartan
goiztiar jaio bainintzen
horrela zioen agenda
besapean:

«Hiru urterekin kaskoa eskuratu
altzairuzko batea zazpirekin
armarri osoa hamahirurekin.
Eta hiltzera!»

Orain
zure gorputzaren
hutsaldi jasanezina
nirean egokitu da
bizitzera
        gesalbegiz

ziurtasuna
giharrak estutzen
pasioa deritzan lurralderik gabeko

zauri alderrai honen
oroimen bortitzean.

Zu zenduta
nigan bertakotuko da pasioa
mundua ohartu arte
hemen barrena ibili zela
elkarrekin idatzi genuen
historia honen uneren batean
penarik
kulparik gabe
heredatu nuen
heresia alai

kiebra
heredatu nuen
diziplina

ohitura
heredatu nuen
inkisizioa
desafiatzeko
ahaleginean lehertu gabe
xuxurlatzen zenidan egunero

ikastolara eramaten ninduzunean
zure betiberanduan
nik, graziaz eta ostia ozpinduz betea,
heredatu ez nuena.

Bizia heredatu nuen
kostaz osatua
minez eta erresistentziaz gainez egindako
baretasuna

umiliazioa fabrikatik dator
gizartean
horregatik hitz egiten genuen
institututik bueltan
errespetuaz eta ekonomiaz
ekonomiaz eta politikaz.
Gipuzkoarra zen ogasuna
bilbotarra speeda.

Begitan dut
ziurtasuna
giharrak estutu eta
dardaratzen dituen hori,
pasioa deritzan

lurralderik gabeko
denbora alderrai honetatik eraitsitako
hauskortasunaren oroimen iraunkorrean.

Zu zenduta
nirean bertakotuko da pasioa
antzematen duen arte munduak
hemen barrena ibili zela dantzan
elkarrekin idatzi genuen
historia honen uneren batean
gauero
Gordon’s bakoitzeko
zure partzialitate alprojarekin nik,
graziaz betea,
heredatu nuena.

# GAU

Ilbegi
utz iezadazu
geldoki
egiazta zaitzadan
unearekin dantzan

mugimenduen elkarrizketan
taupada hezurtuen saldoan
gorputz estasiatuek
argumenturik gabeko
egoeretarako
konposatzen dituzten
eremu estrategietan.

Adibide oparo gisa hasiko gara
herio kosmogoniko bakun amaituko
Epikuro eta bere ataraxiekin
benetako emagaldu
        nota bakoitzean laskituak
        teknikoki lizunduak
gure jainko eta gure fededunen aurrean

eternitate guztirako ja
aske.

Ilbegi
utz iezadazu
baiezta zaitzadan
abstrakzio eta
azpikeriazko dantzan
taupada hezurtuen
eta gorputz sorginduen
samaldan.

# EXISTENTZIARIK EZA

basamortuzkoa
harea
harria
milurtekoak
arnasten

bakeak zikindua
itsasoaren hatsa biriketan
sekula abiatu ez delako
inoiz bueltatzen ez den
ordena bakarti honen
arorik gabeko
espazioak itoa

ezerezean ere
ohartezina

hilik
zoriontsu
basamortu

# BALDINTZABIKOA

*Wanted, Dead or Alive*
dut izana
izateko inoiz
baimenik ukan behar ez duena

baldintzabikotik
hanka egin zuen
izututa

baldin eta soilik baldin
poliespan piztiak,
orduan
herritartasuna.

# EZER EZ DA SOBERAN

Zure esku artean higatutako
erritmo horrek esnatu nau
laba samurreko korronte leunen
sumendi vesubioar bat biribilduz
iskanbila kartsuzko
ezpain danbatuak
        auhenen metrika oparoarekin
        harmonizatzeko duten
        gaitasuna dela medio
        ezagunak

azti zaldunek
su aratzez galdatuz
nire ipurmasailak zure
musura
        laba samurren gordailua
        itsas-lurrin zuztarren
        hezetasun etxekoia

ezer ez da soberan
ermami erregarri horien

swingean
hatz rizomatikoen
berariazko balada errotuak
sustraituta nire izterretan
    ongia hutsaltasunean urtzeko duten
    gaitasuna dela medio
    ezagunak

ezer ez da soberan
metrika sukoien
ezpain danbatuetan
auhenen iskanbila
kartsuan

ezer ez da soberan
fusa bat ere ez
zure eskuek
sutzeko duten eran

# ITSASALDI

esne-malkoekin
harea mugiezinaren
ertz goiena
ohartarazten du

ezaxolaz marruskatzen ditu
etendako bizitza horren dikeak
zaindari jabal
azaleratzen ditu eskuak
fresko paleolitikoan zehar
neurri osoan
esploratzeko
gaztaina koloreko ezpain fosilak
        mingaina pausatuz
        une batez
        kantauri erritmoz
etendako profila beheratu
gerora itzuli
besarkatu eta
haitzak
porotsuki

zanpatzeko
bere tul gris
eta bere olatu
gazien brodatuez
eraisten da dotore
herri txiki
eta kosta handi
honetako
ozeanoa

kantauri erritmoz
beti dantzan
zink gailurrek
kulunkaturik
duna beltz
eta tanta alargunen
kantari

# MINA

arnastean
airean marrazten ditudan
keinu guztiak
mukosa goseti antzera
estaliz

zipli-zapla
bere nahieran
nire erraietan

herio gramo bat
maindire zuri artean
zarataz eta basatasunez
okatua
zeharo
fina eta ekaiztsua

hauskortasunez
horren asfixiatua

erritmorik gabeko

krakatutako oinkadaz betea
kruzero mugiezin batean
bere berezko bakardadearen bila

horren adeigabea
horren oztopatua
existitzeko
nire gorputzak
horren desesperatuki
interbenitua

# ZENTZUA

Zure buruaz beste egiten duzunean
zentzuaren logikak agindu du.
Zure buruaz beste egiten ez duzunean
biziraupen logikak irabazi du.

Zentzuaren logika nagusi balitz
humanitatea ez litzateke existituko
beraz eskerrak
zor zaizkionak baino ez.

# HERRITARTASUNA

lotsagarria da abortu hau
progresoaren garaian
baina nahiago dut
periferian dabilen
duintasunarekin konpondu
eta galdutzat eman
nire integrazioa
modernitatean

# BEGIRADA ODOLUSTEN ARI ZAIZU

Iltze gori bat
Rene D'Aubry erritmoan
zuregana hurbildu eta
zure bozkario herrena
bahitzeko intentzio oro
mailukatzen

utzi etorkizun itxurak egiteari
hoztasun kanporakoi
zure azalarekin nahasia
    burdin sasi *al dentez*
    malko absentez
    hanpatua

begirada odolusten ari zaizu
zure eguna isiltasunean
hornitzen

hobe desioa laurdenkatu
zure keinuen mamigunean

ezerezko bala hura
ekintza gogoangarri hau
bere senetik aterata
balioen besterentze honetan
bere istorioa nola hasi ez dakiena

arima hornitzen dizun
oinazearen hutsaltze hori
izango ote da

nahia pazienteki
irensten dizuna

# POTEATZEA

Erran nahi baita
literalki
taberna batetik bestera
eztabaidan ari
zutik edatea.

Halaber izan liteke
barra batetik bestera
zutik edaten ari
barrez limurtzea.

Dena astrapala
hordi
ke
kale
konnotazio trinkoz.

# PROBREZIA

Pobreziak
izterretan darama plazera
austeritate trebatu batean bildua irmo,
irainez eta jarraipenez konposatua
logikarik gabekoa azalean pilatua
ugaritasuna eta ergeltasuna ez bezalako
bakardade
zorrotz batek populatua.

# GURE ARTEAN

**1**

Imajinatu dut
bahituran utzi zenidala arima
fidantzan
gorputza tarratatzen nizun bitartean

gau bakar bat
        bakarra
eta gorputz hori
aske litzateke
espazioaren laburtasun
despistatutik
        hustean dena
        inbaditzen duena
gau hau
ipuin hau
imajinatu dudan
        trasgresio
        planifikatuko
zer hau.

## 2

Literaturarik gabe bizitzen ez dakien
nire gorputzaren zati hori
zure sexu istorioekin
miatzen zenuela
imajinatu dut

satisfazio aurreikusiaz
asperturik
harriduraren iturburura
itzultzen zela
zure sena

isildutakoaren
        prekarietate
                sentsualera.

Mutu
idatzi zaitut
denetarik egiten.
Nigan.

Pauso irmoz
nire begirada eranzten
        eta larregi hausnartzen duen
        nire instintu honetara hurbildurik
zure ahotsaren ukituarekin
osorik desarmatzen.

**3**

Oihartzun litzateke zure ahotsa
Spinario
drama aztoratu batean
ez duzu nahi Laokoonik
ez Troiako gudurik

ipuin apain honetan
betirako nahi duzu bizi

        nahigabe liriko hau
        zure epika simulatuen artean
        fosilizatu

arriskurik gabe betirako
nire begiratua
nire diskurtsoa
nire prakak
botoigabetuko dituen
esku errugabea
ikusmiratu

plazerez hil nahi duzu
odolez zikindu gabe.

**4**

Plazera gorputza da
gorputza odola
eta drama

beroaldia
jolas galdua da zuretzat
furfuria
ez dagokio zure bizitzari
horiek gabe bizitzak
ez du merezi

gorputz hau
ipuin hau
imajinatu dudan
        trasgresio
        planifikatuko
zer hau.

# TRACTATUS MAGNANIMUS

# TRACTATUS MAGNANIMUS

## 1

Biluzik itzuliko nintzateke oihanera.
Ginkgoen, magnolien eta sekuoien
adarren artean gidatuko zintuzket biluzik.

Titipuntak igurtziko genituzke nahigabe
nana gracilisen artetik igarotzean
eta erdigune sakratuan
abiatze-erritual bati emango genioke hasiera.

Desberdintasunaren elizkizunari.

Ikertuko genizkioke elkarri
atzaparrak eta hegalak
basamorturik ez duten
eztizko duna horiek zeharkatzean
izterrekin sortzen duten harremana.

Biluzik itzuli naiz
halabeharra itsutzeko
atsedenik ez hartzeko

keinu hori nahi dut
nire izpiritua dotore
manipulatuko duen
keinu basatia

jakin dezan
haztatu baino lehen
nola ikertu nire
beste gorputzak.

**2**

Akuri polit hori,
ni lerrotuta baizik
ez naiz existitzen
eta nire misioa
kaosa zeharkatzea da

identitatea ezarri eta
absurdoa biribiltzea,
zure gisako ugaztunek
jarrai dezaten
zentzuan bizi eta eternoki
egietara jolasten.

Zu norabidetzea
eta gero galbideratzea da,
kreatura eder hori,
nire misioa.

Oreka nahi baduzu
agonia eta kontraesana
eman beharko dizkidazu,
ezer ez emanda
ezereza itzuliko zaizu
ezin baitut, kume panpox hori,
ezin beti posizio bakar
eta berbera izan.

Ez nator
zu ehizatzera
zu salbatzera

zure mundu begirada
nire betileen haizeñoaz
urratzera
nator

nire ezpainak
une batez eme
zure bizitzan pausatu
eta zure burua
arrotz bihurtzera

zure minenetik
ukitu gabe
zu besterentzera

zu
bereiztera
nator.

# FAMILIARTEAN

Biolentziaren
ordena sinbolikoa
aita da.

Amaren
ordena sinbolikoa
biolentzia da.

# SATURRARAN

«Call me Sandy», mutilak
orekari eutsi nahian.
«Yeah, well», neskak ezaxolaz,
harkaitz artean plastaka
makurtu da
ikusmiratuz karramarroak
olatuetatik eta
bertoko ehiztariengandik
(«asko dekoguz») ezkutuan.

Haizeak gorputz luzanga eta
arranditsuak jantzi ditu
ordenarik gabe harean zabaldutakoak
lur eragabetua
bertuteetara jolasean
itsasoa hankartean
eta gerritik behera biluzik
agurtzen du
eguzkia
jainkoaren miseriak urtuta
valsean lerratzen da
Saturraranen begien aitzinean.

# MARRAZKILARIA

Argia beste gramatikarik
ez duenean
krokis batekin
trenkatzen duzu
bizitza.

Zure presentea
        mugagabea da
zure izatea
        inozentzia landuko
        zirriborro sutila
dena zuzen
harriduraren eta presentziaren
adierazpeneraino
lotsagabe doakizu ondotik
perspektiban begirada
mediterraneo egunsentiraino

klera pastela bi trazu
eta ehundura bat
ez baitzenuen arnasten jakin

herrialde atlantiko oso bat
borrokan diseinatu barik.

Argia beste gramatikarik
ez duenean
krokis batekin
ulertzen duzu
bizitza.

# PERSPEKTIBA

baliteke
hobeto maitatzea
perspektiba aurkitu zenetik
baina berriro asmatuko nuke
soilik
xehetasunez biribiltzeko
etendako gerra egoeretarako
joera mundutar hori
gerra izoztua
hain intimoa
maitatzean
bakarrik
erailtzen duen
horietakoa

# TERAPIA

inork ez zuen esan
diskurtsoak
bizitza
leku atsegingarria
bilakatuko zuenik

baina ez naiz ni
prestigio eta botere esparruen
konfederazio ez deklaratu honetatik
deserriratu bakarra

ostutako mendekua besterik ez den
justizia honetan giltzapetua
errekontziliazio terapiaz babestua
kontziliatuak jaioko bagina bezala

ai biolentzia
zein ederra zaren
oinazerik gabe

zuzendua izan litekeen

disfuntzio bat behar dute
estatistikek niregandik
baina
bizitzak
konponbiderik ez
gizateriak
sendabiderik ez
zentzua
ezin da
ezerezaren erdian
eraiki
absurdoaren erdian
bakarrik

inork ez zuen esan
diskurtsoak
bizitza
leku atsegingarria
bilakatuko zuenik

terapian jakinarazi behar lukete
baina abestiak dioen moduan
horren gaizki amaitzekoa zen non
ezin izan bainuen sekula hasi

# HAIEK DIRA

haiek dira
beherantz bihurritzen
zango artean burua astintzen
haiek dira
kolokaturik
zorabiaturik
zerurantz tenkatzen
infernu urdinxka hori bortxatzen
haiek dira
bularrak estutzen
gudu tanta adeitsuetan
arrailak ireki eta
etena ezagutzen ez duen
plazer uluz unibertsoa biltzen
haiek dira
hutsegiterik gabe
lizunki dantzatzen
gerra bat hasi nahian bezala
berdintasun hutsagatik
haiek dira
grinaz armaturik

argi balak
barreiatzen gozamenaren
erribera guztietan
hezetasun eta luxuria zaporez
taktikaz gotorleku
izatez deskortxatu
haiek dira
zehatzak
beren ahuldade
eta sendotasunean
haiek dira
apartekoak beren miserian
haiek dira
trostan denon orainean

# ZURE GATZAREN MALKO BATZUENGATIK

Stalin eta Lenin bitarte laxo
gailurretik gailurrera
zamalkatuko nintzateke
zure ipurmasailetan
Tajikistan eta Kirgizistan artean

Gobi atzealdeko patioa
zure estepa arrosa eta
zure zetazko goi-lautada beltzekin
konparatua

edadearen
sakrifizio polarra
epeltzeko
kotoi eskarlatazko
igluak eraikiz
odolustuko nintzateke
Siberia osoan barrena

aurre egingo nioke

Mongol armadari
zure gatzaren
malko batzuengatik

nire mingainarekin
zizelkatuko nuke zure tailu osoa
nire hatzmamiekin zure zerua
infernua entretenituz
plazeraren jolas
errudimentarioarekin

zure gatzaren
malko batzuengatik
lehertuko nintzateke
milioika fruitu kartsutan
zure existentzia nabarraren
oinatzak argiztatzeko
ilargia ezpainekin hurbilduz
zure lubakiraino

gailurrik ez
esteparik ez
arrosarik ez

bakarrik geratzen naiz
intentzioz
joeraz
eta gerraz
beterik

haizezko igluak
eguzki izoztuak
lubakirik gabeak

bakarrik ilargi
eta leherketa barik

    ez armadarik
    ez zerurik
    ez edaderik

bakarrik
gogoz
eta
ingenuitatez
beterik

# INFERNUA

Soraioek
boterearen
ahalmena
duten sasoia

# AKADEMIA

miseria tinkotzen duzu
betazala mugitu barik
bere burua engainatzen dakien
gelditasun
distantziakide batekin

aristokrata beldurtia
hala moduzko jatorria
existentzia higatua

zertarako nahi duzu
Hefesto surik gabe
Atenea Medusarik gabe
zertarako bere ezinezko ontologia
bere ahuntz armarria
bere latorrizko begi-niniak

zertarako hainbeste utopia
haustura barik
horrenbeste erudizio
ulermen bako

birsortzea kudeatzeko
zorigaitzeko aditua
pasioa laidotu eta latorrizko begi-niniak
puzturik
errausteko
zinikoki
        zure gorputz izoztu eta
        herdoilduaren ertzetan
        desioaren eta sorkuntzaren ezbeharrera
        zuzenean daraman
ibilbide galarazi horren
sorburua disimulatuz

# HERRIAREN TABERNA

barra batean enkoadraturik
disolbatzen da arratsaldea
argi mehe baten pean
elkarrizketa merkez
trago koma irri artean

burutazio hordiek
eskasiaren sen on batez
mugitu gabe saihesten dituzte
absurdoa luxua eta arrazoia

asmo pildatsuek laguntzen dute
arretarik ezean hazitako desioa
        baina haur eszena hutsalez
        eta ardi aroko etorkizunaz
        gizendutako orainaldi honi kateatua da
obrero eta exiliatuarena den
gehiengoaren bizitza

# KONTRABANDOZKO ATRAKZIOA

Larruazal honen egarri
erbesteratzen duzu eskua
ekintasunez ihes egiten badizu ere
begiradak larru gorritan
bozatzen mingaina
nire ahoaren behartsu
        eztia
zure ezpainetatik
        atergabe
        labaintzen.

Ahalke tantak
banan-banan haztatu
larru lodiz hozitu
klandestino nirean
ni zure izerdi bihurtu arte
larrua findu.

Gurean dena
larruz

kobratzen da

ukitu
totemikoa
jokoz kanpoko
ukitua
zure koldartasunari botoitua
jakin
ez dakiela
nola zezendu
zure legeei men egiten ez dien
kontrabandozko atrakzioa.

# ZORRORATUAK

gorputz zorroratuak
lur eme galduan

eskuak prest
zorrotik at
berezko begirada
sexu
eta ahoarekin
desiratuak

ez indize klinikorik
ez antropologikorik

misogino Adamtarrak,
ez duzue sekula jakingo
nor garen,
Jaun Jakitunak

zuen zientziak
signifikatzen
uzten ez gaituelako

zuen humanismoak
mingaina
sexua
begirada
erauzi dizkigulako

baina badugu oraindik bizia
desioa
armak
(eta humanismo apurrik ez)
zorrotik ateratzeko

# EGIA

hain pobrea da
inork ez du nahi
eta horren garesti saltzen da
berak ere haizu ez

# IZERDI MALKOAK

krudeltasunetik hanka
egin nahi zenuen
ur birziklatuz betetako
izpiritu kaskar horrek
nire lehen gizateriaren
eta oker ondratuenen
lapur

espoliazio eta akumulazioaren
malko galduak kurritzeari
utzi nahi zenion

malko urdanga eta zuhurretan
kontsolatu nahi zenuen
ziurtasun
        bertute
malkoetan
barrezko senezko
eta biziozkoetan

baina ezin duzu ihes egin

izpiritu akastu
izerdi malkoetatik
mundua hornitu eta
ukitu soilarekin
(Marx)
krudeltasuna
gizatar
gizatarregia
(Nietzsche)
bihurtzen dutenetatik

# GITARRA ANDRAZKOTUAK

tarte semantiko bat besterik ez zara
ilusiozko eta ile kizkurreko eskeleto semiotikoa
abstinentziaz eta neurrigabekeriaz konposatua

utz iezadazu istant amaigabe bat bizitzen
kantu flamenko eta gitarra andrazkotuen
melodia andaluz donostiar lasartear honetan
zure bekain beltz eta errima zoroen artean

utz iezadazu zure tristura gorrian dantzatzen
astrapala gorriz sukartzen
eztanda egin eta berriz nare arnastu arte
ile kizkurrez eta ilusioz ase
zure ukitze grinatsuak
nire ego eta nire erregina afroalemaniar
euskal errepublikar demasien artean

ezin da dirurik eta herrialderik gabe bizi
baina emango dizut nire arima gorri
metafora literalez trinko
nire kizkur semiotikoak
abstinentziaz eta neurrigabekeriaz konposaturiko
nire eskeleto adierazlea

# SERIOTASUNA

nire gorrotatzeko ahalmenak
nire maitatzeko gaitasunarekiko
proportzionala behar luke
eta nagusiki biak seriotasunez burutzeak
arduratu behar ninduke

# HAUSTURAK TRADIZIOARI

ez zaitez nirera etorri
monotoniaren
usadio bihozgabearekin

sistema osoak
dauzkazu oraindik
deskubritzeko

eta nik, laztana,
lekua soberan
bertan galbideratzeko

# HOTSA DABIL

Diotenez
Subjektua
Iragan mendean hil zen
Jainkoa hil eta
Justu
Ehun urtera.

Hotsa dabil
Subjektua
Prozesu haragitu dela.

Objekturik gabeko
Prozesu
Tolesgabea
Krudela
On hutsa
Eta ergela
Dena leku eta
Momentu berean.

Ez dago
Kontraesanik
Prozesua baizik
Objekturik gabeko
Ni
Esaten diodan
Prozesua.

Baina ez dut
Nik esaten.
Ahotan
Da.
Hotsa
Dabil.

# RAVE

geltoki okupatua
dotorea
Londongo periferia
umiliatua
ipar periferia
Victoriar bridaz
oinordegabetua
Hackneyko noblezia
igo da gaur larruz beztitua
piercing jakek
inguratzen dute
sare analogikoz jantzita
Camberwell errebaleko
brigadek trabeskatu
Europa soinudun eta digitala
argiztatzen duen
Biltzar Ttipi italiarra

kulunkatzen hasi dira
Cityaren hego hego-ekialdeko
bihotz dislokatuak

erritmo onean desmuntatuko dira
japoniar zoratuen eta
irlandar mozkortuen artean
denek ezagutzen dute
irteera txistukatzen duten
hall itzela
Venusen jaiotza eta Udaberria
Drum&Bass
harrizko hormetan
sabai obalatuak eta
komun pribatuak
zoko guztietan
argirik gabe inprobisatzen da
bertan bizitza
Acid-house
deep deep house
dantzatzen dute giza harpek
gogoaren autobidea
hamar lerrotxo etenetan banatzen
zarata King’s Crossera iritsia
dotore eginez agurra
hirugarren egunean agertuko da
polizia

# KLASE ERTAINA

**1**

frakasorik gabe
hobeto biziko gara
glorian baino

klase ertaina
moderazioa da zure patua
iruzurraren eta abusuaren
galtzapeko bitartekotza

klase ezaguna
sorginen
langileen
pobre desklasatuen
kontura

gatzarena arriskatu zutenak
atzo itsasoa estaltzen zuen
eta gaur zure masailetatik labaintzen den
gatz guztia negarrez

sekula negar egin ez zenuena
mundura ailegatutakoan
zurea ez zela
esan zizutenean

miseria giroan erregina
besteren ugaritasunen morroi
familian erretreta alienatu baten alde
ez degradazioaren
zarata ezinduari aurre

erretreta atzera egitea da
atzera egitea umiliazioaren aurrean
porrota
nahiz eta frakasorik gabe bizi
nahiago
glorian baino

## 2

fisiologia dosi txiki batekin
zioen batek

izpirituak ez lizuke alde egin izango
orain ordea
balio taxologikorik gabeko
animalia zara zu ere
idealizatzen duen horietakoa
zuhurragoa dela bizitza
baretasun dirudunaren eta
ironia zintzopensantearen hankartean
dabil errondan despistatua
agoniaren parabola
ustekeriaz eta ignorantziaz mozkortua,
gehiago daki zure gorputzak
    zure bertuteek zure paradigmek baino
bere helburu bakarra
orain ehunka milaka urte
plazer partikularra lortzea du
ez moral unibertsala
hau lotsa
hau nahigabea

baina emadazue kapitala
eta generikoa bilakatuko dut mundua
oihana eraikiko dut urre koniferez
brontzezko lur emankorrez

eta metanol gardeneko errekez
titaniozko basabideetan barrena kurritzen
kautxuzko zerua eta kola izarrak eusten

piztia hori,
marmolezkoa egingo zaitut
isiltasun akriliko eta
soraiotasun ekitatibo batekin

**3**

eztanda,
zatoz nirera
zuregatik emango dut bizi osoa
zuregatik salduko dut nire klasea
ertainen klasea
borondatez salbuetsitako
beldurrez okatutako
konformidadeagatik
bakea trapitxeatu baino

# TRACTATUS INNAVIGABILIS

# TRACTATUS INNAVIGABILIS

koito egunean
utziko diogu
maitaleak izateari

oztopatutako ohitura zahar baten
mendeku
su geldoan munduratua

desioa

erreka elbarri
ari da zabaltzen
ardo beltzez errez
zure esamoldeak
nire kaolin titi artean
bakarrik
nabigagarri

desioa

olio suz
markatua
birundan
delirioz janzten gaituen
buztin

ez naiz ni
bideraezina da
nigan haragitua

bizitzeak
desioaren
babesleku garden
bilakatzen nau

bizitzeak
susmagarri egiten nau

su fineko
ziriz hesitua
bideraezin

ez zait letrazko
esaldi bat bera ere

geratzen

dena da magma
heze
dena da masa
ilun

aurpegirik gabeko
biluztasunak
munduratua

beti puru
eta susmagarri

errepikapen
haragitu den izar
beltz baten antzera

    nire kaolin titi artean
    bakarrik
    nabigagarri

ez hauturik
ez bereizketarik

dena da purutasun

desioa

ez naiz ni
aditzondoen
simulazio
sutsu hau

irmoki
kikilduki

bestea
aurpegirik gabeko
biluztasun

bideraezin

koito egunean
maitaleak izateari
utziko diogu

desioa

dena da magma
heze
dena da masa
beltz

dena
biluztasun nabigagaitz
dena

tarte hori izan ezik

    nire mingainak bakarrik
    ezagutzen duen
    zure mingainaren
    tarte hori

# ABISATU EZINIK

Isiltasunez alboratzen dut ahotsa
zu hartzeko hausnar
dimentsio bideraezinen atari oroitzen zaitut
hiperkubo batean amestuta
neurrigabekeriaren etc guztiek eskoltatua
sekretuan eztabaidan orain
laxo elkarrizketan
bukaezina den zigarro baten kea iduri
        kinka okerra jatorriz
        badaezpada berrirotua
        kemen gorriz
eta intziri urratu baten laguntzan
nire erraietan aterpetua,
hondale arrarotu
zulotze sadomendekati
eta hotz izerditu
herreneko triskantza lau honen
dimentsio miserableetara
itzuli nahi ezik.

Ilargi kanpaiak

borborka espazioan
eta ni zu abisatu ezinik
nirekin zaudela
eguzkia gonbidatzeaz ahaztu zen
egun honi kateatua
    nire begipeetan tolestu da dena
    eta iltzatuak dauzkat malkoak
Lurra den
ama puta honen
kirio gatzatu eta
zarratatuari.

# MAITASUNA

Baliteke zuk
neska gizen
argal eta beldurti horrek
lapurtutako gorputz batean
maitatzen bizitzeko
trikimailuren bat izatea
menderatuta maitatzeko
etsia emandako
lurralde batean.

Baina
maitasunak
zu merezi ote zaituen jakiteko
askatasuna
praktikatu beharko duzu
lehenengo.

Beharbada zuk
neska alai
itsusi eta arriskutsu horrek
trikimailuren bat duzu

mundua zapartatu gabe
menderakuntza zapartatzeko.

# ALFERKERIA

bidegabekoa eta berantiarra
pobre beti eta asebetea
kalezulo batean sartua
gorrotoaren eta plazeraren pean
ahanztura eta mespretxuaren artean

# PRAGA

Estatuarik estatua
zeharkatu dugu beltz
Europa odolustua
Karlovo Mosten

formalismo barrokoak
karrika artean aienatzen dira
nahastuak lurrazal izoztuan
pobrezia alderraiek
gorputzik gorputz
menderakuntzatik eta sumisiotik
alde egin ezinik
diraute mendeen gaindi
katedralak
eta bere magiaren bere fedearen
kastitate gotikoa argitu zuten
bortxa guztiek bezala

urreak ez du dantzatzen
teilatu mugikorren brontze berdearekin
behatu baino ez du egiten harrituta

tabernan sartuko bagina bezala
katedralean barrena
beldurtzeko paratu zakur haien
tailu zelatarien
aurrean axolagabe
herri indezentea
fedebakoa
letrez ez dakiena
soilik torturaz
korridore likinez
eta kontrahorma bihurrituez,
sakratuaren errege-mafiaren
mezenas horiez.

Sortuaren siniestrotasunenean
eroso egotera iritsitakoan
heltzen zara
erosotasunaren gradurik gorenera,
diziplina sakratu
eta militarrak
egoitza duen hartara.

# NEURE BURUA FORMALIZATZEN

Pentsamendua
eskultura neoklasiko bilakatuz
azalera perfektuekin
edukiari egokiturik
baina berarekin
serioski endredatu gabe
arbaso arteko flirt hutsa
etsipen harmoniatsua
eta kemen falta
puntua inbaditzeko sikiera.

# BESTE GUZTIA

ez zara nire burkidea
zure aurrean zarrastatu
eta nirekin batera
zarrastatu ez bazara

izan zaitezke
nire senidea
nire orgasmoa
nire historia unibertsala

izan zaitezke
identifika ezina
izan zaitezke
beste guztia

# MUNDUARENAK BAGINA BEZALA

ezbai eta ziurtasun naukazulako
maite zaitut egunero

paseatzera ateratzean
zure hatz artean
arrarotasunaren
desioaren eta
sistemaren pitzadurak
seinalatzean

zaintzen nauzulako
itxuraz behar baninduzu
harriduraren eta ezustearen
arteari atsegin sari
urte luzetan marratutako artea
gure harreman bizkor eta
pausagabean
zure ipuin genoziden eta
nire infrakzio poetikoen artean
sortu ditugun

umore moratuko
euri beltzeko eta
arrazoi etenkariko
mundu gertagaitzetan

zurtuta nahi zaitut
masailekoa joz
nire peskizen aureolan
negarrez barrez
nire abenturak kantatzean
eta negarrez lantuz
inpudikoki diotsudanean
osorik naukazula
zure hitz
egintza on
        eta maltzurrentzat
zurekin batera
bizitza erauzteko
gupidarik gabe eta beti
munduarenak bagina bezala

krimen eta esanahi zaitudalako
maite zaitut egunero

# JAINKOTIARRA

Poloniako hotza bezain zapalgarrizko
begirada zaharra
profilik gabeko puntu batean finko
ilusio bako
bizitza hilkorretik ezer espero gabe
bizitzen dakiten
idealek bezalaxe.

Gurpil zabaleko tiraderan
eskultura gisa
anderea katonatua
sendotasun izoztuak inguratua
metroko tunel baltzituan
txankak plastikozko poltsetan
baltsamatuak
itxi gabeko zamarra bihurria
Varsoviako matxinadan jantzitako
txapel iheslariarekin
konbinatua
higikortasunaren
bazter ahaztuetan

zaborrontziko
ogi kozkor bat miazkatzen du
aurpegipean asetasun perbertso bat
ezkutatzen duten begi zahar
eta pribilegiatuen aurretik
hiri osoa igarotzen zaion bitartean:
jainkotiar antzeko patxada
hain kolpatua
non apurtezin.

# KAUSALISMOA

justifikaziozko eta
sumarioko
espioi hori

atera dezala norbaitek
gau batez
paseoan

ibai aldera doan
atzealdeko
karrikatik

ez dakit

hutsalkeriaz jipoitu
giza tontotasuna iltzatu
eta berriz ere
kausarik gabe
aske utzi

# DISIDENTZIA

Neurrigabeko neurritasun
albertxiko batek
ertzatzen dizkizu masailak
amodio korapilatsu bat
diskordiarekin
    konfortaren eta subertsioaren erdigunean
    sosegutik liskarrerako trantsizioan
bizirauten duzu
zauritua
trebea
borrokaren eta elkartasunaren
fribolitateen artean.

Ez naiz zure
baina leunki
kulunkatzen nauzu
trasgresioaren
periferietan.

Orain tradizioa ohitura bihurtu zaizula
eta desakatoa

zure tragedien erdigunean
umotu,
orain inbasioak debekuan
berandutzen zaizkizula
ez Boscorik
ez Danterik
zortea duzu
ni zugandu gabe jarraiturik.

Ez naiz zure
baina haztatzen nauzu
zure eskuek
errutina despistatutik
erauzteko ahaleginean
daramaten
mugimendu lehiatuan

intimitate bilakatzen nauzu
egonkortasun asebete horretan
zamalkatzean.

Orain adarkadak desberdintasunean
berandutzen zaizkizula,
orain zure lotsak

nire aurpegia
estutu duela

lirainki hots egiten didazu
itsatsiaren eta
urratuaren
trokazko tartean

samurra eta lotsagaldua
nahi nauzu etxeko
    sosegutik liskarrerako trantsizioan
ozarrari diozun
amodio herabe horretan.

Ez naiz zure
ez zenuke jakingo
zer egin
horrenbeste disidentziarekin.

# ERREALITATE

izara gozatsuaren ukituez durduzatua
logura
niregan katonatua
etxekotasun plantak eginez
urte luzeetako harremana
hogeita hamar eternitate eta ez da zerik
errealitate
hegohaize tonuz gaur hezetasunez jaioa
galdatua
dena zait erabateko baretasuna

tolesbako haize finaren ostean itzuli zara
janztura kikildurik gabe
eguzkia saihestuz
durunda haragi biziatutako
itsas honetarantz erakarriz
zurrumurru boladan datorkit
zure denborale jolasgarria
baretasuna heriotzez hilik
airea estuturik
utz nazazu pixka batean

susma zaitzadan
urrunean
presarik gabe
elegante
bizitza osoa dugu
osatu zaitez
errealitate

laparen gisa niri josia
ez galderarik ez homiliarik
ezin dut arnastu
musukatu marruskatu barik
ekintasun gupidagabea
utz nazazu lanean
nire hurrengo okerkuntzan

pentsatu dibergente
nola kontatu neurriz eta egiatasunez
haizetza filosofikoek inguratuta
    fruta-algoritmorik gabe
    nire eguneroko herio nokturnoa
    hornituko duen planik eta
    gaubeila sostengatuko duen
    urre-eurizko kontsoladore

afrikarrik gabe

beti dantzan zauri etxekoien eta
herdoildutako tulen artean errealitate
kako-iltze
hobeto egin nezake
nire hurrengo errakuntzan
utziko baninduzu lanean

pentsatu dibergente
nola azaldu
oharkabean nire heriotzarekin
bizitza eztitzen duzunean

berriro jaiotzeko parada barik
traidorea ni
bakarki utziko zaitut
nire dantzarik eta hutsaldirik gabe

ezereztuko zara
zinez
istant batean
ni musukatzeko
neurririk gabe

malerus ostikoka

badoa zure bizitza

badoa

# KAPITALA

Zakurkeria demasa da
kasurik onenean
bizitza (hirurogeigarrena)
dio sudur orrazkera deseginarekin
beltza ezpainetan
eta kartoi fineko beste ale bat
arazoa ez baita
ez kea ez ogia
mugikortasuna baino

Barakaldotik Basaurira
etxean izotz
tabernan zor
keinu bakoitzeko kobratzen da
ez badago dirurik
ez dago eskua
mingaina
esanahia
lekualdatzerik

hotz
mugiezina
soilik

pobrezia besterik
ekoizten ez duen
mekanismoa da

kapitala

biolentzia inpartziala
partziala baino hobea
izango balitz bezala

hotz mugiezina
demaseko zakurkeria
dio ke laino artean,
non da nire esku
mingain eta
esanahien
balio erantsia?

Izoztua,
sudur orrazkera deseginarekin.
Zorpetua,
beltza ezpainetan.

# EUROPA

Berdinduaren eta
bereiziaren arteko
erlazio barrokoa
paseatzen da biluzik
biolin kontzertuz
zure garondotik

urkatua
nahi ezik Mi maiorrean, adagio,
udaberriak Berlin
elurtzen duen moduan.

Presentzia hustuen
huts ordenduen
idilio nahigabetua

agora erbesteratua
hitz bakoa

eskuarteko harrotzez
ehundutako

erdigune ezereztua

Europa

barrenik gabeko
biolontxelo barrokoa

harien arteko duelu eternala
zure lepoan

urkatua
nahi ezik Mi maiorrean, adagio,
udaberriak Berlin
elurtzen duen moduan.

# PERBERTSITATE

Entzuidazu pantera beltza
dantzaidazu umore apurra
utzidazu irribarre hori
une batez
larruazal jainkotiarra
ugaztun soinean
arriskutsuki ahazten duena
isiltasunean ahazten duelako
mugen jatorria

erotismo eza da
soberaniazko beldurra.

O, perbertsitate
alai eta herrikoia,
non sartu zara?

Hitz ematen dugu
ez dugula jakingo
nola sortu zen
zure egokiarekiko gorrotoa,

sinetsiko dugu
hitzez
sortzetiko kontua izan zela
botere afera
berotasun, liskar
eta hiltzetikoa

gaiztotasunak ekarpenik ez
zintzotasunak etekinik ez.

O, perbertsitate
alai eta herrikoia,
non sartu zara?

# GIZA GEOGRAFIA BERRIA

İnork ez dizu eskatu
nirekin oheratzeko
oihanaren erdian

nire melodia dastatzeko
aski da nire erritmoari adi egon
zure gogoari lotu eta
autostop egitearekin
nire bizitzaren bazterretan
eguna norabidean

ez dizu inork eskatu
makurtu eta
bere topografia osoan zehar
melatzeko
nire arima

desegokia
dirdiraka
zure begi ninian

itxaronaldia ailegatu aurretik
sinfonia apokaliptikoen
parranda indiskriminatu hau
amaitu baino lehen
tempo bako tonuz
metrorik gabeko erritmoz
beztitu zara eta
ez dizu inork deus eskatu
baina giza
geografia
berri batean
barneratu zara

miazka iezadazu arima

# KALAMASTRA

kolonizatua daukat imajinazioa
baina bakezaleek ez naute oraindik
herritartasun lirikoaren fase berrira
miseria normalizatuko egungo estilora
girotu

kalamastra dut larritasuna
sukarrez argindarrez eta mudantzan
baina lekuz aldatu gabe,
erlaxa dezaket
ispilura begiratuz
            eternalki organiko
            eta ilusiorik gabe
pozez putz egin eta
kaiku mozoloak izan ezik
mundu osoa desagertzen denean bezala

glaziar bat ere badaukat
adimena bezain kolonizatua
milaka urte eta gero
niregain urtzea erabaki duena,

zoriontasun apur batengatik
errealitate guztia prostituitzen dizu
eta inozentzia du izena

# INTENTZIOA

nola nahi duzu
perpausik gabeko
edertasun sekretua
bizitza bakar batetik
uler zaitzadan

# NIRE KREATZAILEARI

hostokentzen hasi naiz eta
kezkak hartu zaitu
zer izango ote naizen
gaur
izango ote naizen

agian jaioko naiz
langabetu
lehendakari
jubilatu

akaso heldu jaioko naiz
eta ez dut distantzia egokiz
hausnartzeko
zure faboreen beharrik

akaso ilehori eta azeri sortuko naiz
zorrotz eta oharkabe bizirauteko
familiaren itzulera europar honetan

agian peoi jaio
eta xake bat egingo dizut
zure bizitza
zure ondorengotzatik
banantzen duen
baldosinaren erdian

ausaz lelokeriazko une
sortuko naiz
amarrarik
koiunturarik
umorerik gabe

akaso ilargi-ulu orraztu batez
betirako toreatuko zaitut
gaur otso jaiotzean

edo maita zaitzaket agian
instintu eskaseko piztia honen
tratua egokitzen baduzu
ez daukat dibinitaterik
        pittin bat ausaz
marikoi iragangaitz eta

kobra hausnarkarien artean
jarraitzeko desio sutsu horren atzean
ostendua

putz egin hosto guztiei
banaizela dirudi

# MUSEOA

Goya Akelarrean
mozkortuak eta
zorigaitzak beren poztasunean
ez arraitasunik
ez elkartasun uzkurtu baten
zantzurik
piztia kirastuak besterik ez gara
zaratatsuak korrokadunak
eta planeatzen dugularik
suntsitzeko baino ez da.

Saturnok ez du deus jakin nahi
ugaztun berritsuez
bere ile gris harrotuarekin
irensten du etorkizuna
jabegozko foneman
oraina (koskorra eta desarmatua)
torturatuko du

eta orainak ere sakrifikatuko du
(zibilizazioa da)

ahulena eta babesgabeena
babesgabetasunik eta ahuleziarik
gabeko
etorkizun baten izenean.

Piztiakeria erretratuak
mina argiaren eta kolonizazioaren
irazkinaz
puruak bilatu trafikanteak aurkitu
pintura anglosaxoia eta
industria bankari pelotoia
beste botere mozkorraldi bat
Apolo delako baten atzealdera itsatsia
ipurdi hilezkor on bat
jainkoak boterea usatu
dezaketen lekuetan bakarrik
kokatzen baitira
diote
Herkules seinalatuz
marmol bihotz
aurpegiarekin
Egeo itsasoari eutsiz
soinean ageri duela
betiereko erronka hilkorra

trafikoak eta Nikek arindua
hankutsik eta militarra
ibiltzen du Omonia
areto amaieraraino
mila soldadu
Zeusen aldareko
gudurako bertan zain dituela.

Simetria eta harmonia klasikoa
egungo hondamendiaren aurka
arrakala asmatuak
biziro kokatuak edozein kaosetan
arte gisa eskainia
MTV banderatxozko
txango jendetsuei
azenario krema zarrastada
eta Albaceteko zutabe dorikoei.

Inperioen bidegurutzea da
boterearen
edertasunaren eta minaren
elkargunea
sarkasmoaren
argiaren eta
ergeltasunarena.

# ISILTASUN

Zure hatzen akoplamendua
nire gogoan kuttunki
bilatuz harridura.

Hitzak gorpu jaiotzean
sarraskiak partikularrak direnean

ninika batetik erailtzen zaituen
laztan anker hori
eta
batzuen zakurki maitatzeko
era.

Hiltzen zarenean
inoiz eduki ez zenuena galtzean

odoluste putzantu hori
alegia munduari muzin

kaleen abordatzea
iluntasunean

intimitatearen
ilundegietan
dena desagertzen den gunean
ekintasuna ezik
geriza bakoitzean urgabetua
lantua
bete ezin diren desioen tilet
bilakatzen delarik

isiltasun gau
ez duena galdegin
berrikusi duena

isiltasuna
umiliazio bakoitzak
dakarrena

zeruak eta umorea deskubritzean
esku berriak ezbai zaharretan
beste erritmo bat nire etzanguan.

Zure sentsualitatea nahi dut
omisio belo artean
atzamarkada arinen

basatasun eutsia
diskrezioz armatua
labainduz
beztituz
nire gorputza
zurean.

# NON ZAUDE

Non dago
dantza iniziatiko hura
koktel eta pelotazo artean
zure Morgan esmokinarekin
zure zigarro zuriarekin
zure zuhur bibotearekin.

Non dago
militantziaz
labezomorroz
eta hezetasunez
betetako etxe hura zaintzen zuen
sentikortasun
insolbente hura

gau eta egun
nik 15
zu pobre
Donostia aberats.
Lola estás Loca, Plarena.

Non daude
uhinek eta zure
insultatzeko moduak
ofenditutako
paseo
beti berri
betirako eten haren
intimitate borraskadunak,
zure aterki beltza
zure egunkari euritsua
eta nire eskua
zure eskuaren aurka
urduri borrokan.

Non zaude Tomas.

Non dago
gau eta egun
galmenaz
isilik
mendekatzen zen
zure begiradan gordetako
malenkonia

ni bideratua
zu pobre
Donostia aberats.

Non dago
algara tinko hori
militantziaz
labezomorroz
eta hezetasunez
betetako herri hau ernaltzen.

Non daude
pentsatzen ikasi nuen
tugurio haiek

non erresistentzia
bizitzeko modu apasionatua den,
eta maitatzen jakitea
ez den maitatzea.

Non zaude Tomas.